



EEBBek ez zioten 'argi berdea' eman Saddami Kuwaiten sartzeko

WASHINGTON

Estatu Batuek ez zioten Iraki Kuwaiten sartu ahal izateko «argi berde» eman, James Baker iparramerikar Estatu idazkariak esan duenez. Bere ustez, April Glaspie Iraken enbaxadore estatubatuarrak ez zion horretarako inolako adierazpenik egin Saddam Hussein, lehendakari irakiarrekin uztailaren 25ean azkeneko aldiz elkartu zenean.

Glaspie eta Husseinen arteko bilerak eztabaida bizia sorrerazi zuen EEBBetan. Enbaxadoreak Saddami adierazi zioenez, Estatu Batuek ez zuten Irak eta Kuwaiten arteko muga auziaz jarrera zehatzik. «Guk ez dugu eritzirik ematen arabiarren arteko arazoetaz eta Bakerrek erizpide honi segitzeko aholkua eman digu» komentatu zion diplomatikoak Hussein.

James Bakerrek CBS telebista iparramerikarrari esan dioenez, ezin esan daiteke Saddam-ek adierazpen horien ondorioz Kuwaiten sartzeko erabakia hartu zuenik. Estatu idazkariak 'oso funtzionari ontzat' jo du Glaspie baina zehaztu ere egin du enbaxadorea ez zela bere agindu zuzenen menpe izan Saddam Husseinekin bildu zenean.

Irakek «nazioarteko ordenu berria» baztertzea eskatu dio Magreb-i


Gerran aukera irakiarrak indartsuak direla dio Hammadik

Erasoari aurre egitea eta defendatzea da, Iraken ahalegin diplomatikoen helburua. Iran eta Jordanian egon ondoren, Irakeko lehen ministroa, Saadun Hammadik, Magreb-en dago orain, jende asko Iraken alde jarri den Ipar Afrikako eskualdean, eta han azaldu zuen jarrera tinko hori.

ALJER

Gerra hasi zenetik, Hammadik beregain hartu zuen diplomazioaren pisua Iraken eta ez du azaldu atzera egiteko inolako asmorik. Aljer-en, egoera optimista zela esan zuen Hammadik, ez dagoela arrazoirik «biztanleen kezka pizteko». Bere eritziz, Estatu Batuen helburua ez da Kuwait askatzea edo nazioarteko zuzenbidea aplikatzea, petrolio putzuen eta eskualdearen kontrola baizik. «Amerikarrek eta beren aliatuek gerraren bidea aukeratu zuten, guk onartu egin dugu desafioa eta horri aurre egingo diogu», esan zuen lehen ministrorde irakiarrek Aljerian.

EEBBk parte hartzen ez badute, Irakek onartuko ditu negoziaketak, azaldu zuen Saadun Hammadik, bidaia hasieran Jordanian esan zuen bezala. «Eurek [nazioarteko indarrekoek] gerra nahi badute, onartzen



Saadun Hammadik.

REUTER

dugu; bakea nahi badute, onartuko dugu hori ere, baina arabiarren arteko baldintzarik gabeko hizketaldi bezala, eta alde batera utziz kolonialismoa eta estatubatuarrak».

Iranera ihes egin duten ehundik gora hegazkin irakiarrak ere aipatu zituen Saddam Husseinen ordezkariak. Erasoetatik babesteko neurria zela esan zuen Hammadik. Egokia den unean hegazkinak berriro erabili ahal izateko egin zutela esan zuen.

MAGREB-EKO ESTATUEI DEIALDIA

Aljerian izan aurretik, Tunisia ere bisitatu zuen Saadun Hammadik. Bertan, gobernu arabiarrei deialdi berezia egin zien, beren herriei Iraken aldeko jarrera argi azaltzen uzteko, seguruenik Magreb-eko estatuak zuzendua. «Nazioarteko ordenu berri delakoaren aurka jartzeko» eskatu zien herrialde arabiarrei, «Estatu Batuen hegemonian oinarritzen» bait da.

Tunisian, gobernuak erreprimitu ditu talde islamikoen zenbait ekintza. Aljerian, talde politikoak daude gerraren kontra, baina Xadli Benjedid lehendakariak jarrera hotzagoa agertu du. Marokkon, gobernuak tropak dauzka nazioarteko koalizioan, baina oposizioak Irak defendatzen du eta kalean milaka lagunuen protestak antolatu ditu, gobernuaren harri-durarako. Aljerian egon ondoren, Mauritania eta Sudan dira Hammadiren bidaiko hurrengo geldiuneak; ez du Marokko bisitatu. Irakeko botereko Baaz alderdiko pertsonaia garrantzitsua da Saadun Hammadik, ezkerreko intelektual xiita.

✓ «Aliatuek gerra nahi badute, onartu egingo dugu; bakea nahi badute onartuko dugu hori ere, baina kolonialismoa eta estatubatuarrak alde batera utziz».

Mubarak: «Saddamek herrialde arabiar guztiak kaltetu ditu»

KAIRO

Kuwaiteko eta Palestinako arazoak desberdinu egin behar direla esan zuen berriz Hosni Mubarak-ek, Egiptoko lehendakariak atzo. Kuwaiteko krisia, «arabiarren artekoa» da, adierazi zuen Mubarak-ek, baina palestiniakoa «desberdina» da, herrialde ez arabiar bat bait da lurralde okupatzailea. Kontestu horretan, Kuwaiteko inbasioak «herrialde arabiar guztiak kaltetzen ditu» Mubarak-ek eritziz, «eta bereziki palestinarren kausa».

Egipton ospatutako festa islamiko batean egin zituen adierazpen hauek lehendakari egiptiarrak. Bere hitzaldi ofizialean, Saddam Husseinen ekintza guztiak erlijioaren kontra-koak direla frogatzen saiatu zen Mubarak, Kairoko Al Azhar meskitan egindako hitzaldi horretan.

Bagdad-eko mandatariak berari egindako tranpa aipatu zuen: Mubarak-ek esan zuenez, engainatu egin zuen Saddamek inbasioa baino egun batzuk lehenago, neurri hori inoiz ere ez zuela onartuko agindu bait zion Mubarak-ek.

Hitzaldian behin eta berriz errepikatu zuen, Kuwait dela gerraren kausa eta ez besterik. «Nazio desberdinek proposatutako bake plan guztiak Kuwait libre uzteko beharra azpimarratzen dute», esan zuen Mubarak-ek.



Hosni Mubarak.

rakek. Bere eritziz, gerrarako kanpoko potentzietan aliatzea bidezkoa da, eta Egiptoren jarrera «etikoa, zuzena eta humanoa» defendatu zuen. Arabiarren zatiketaren erruduntzat Saddam Hussein jo zuen Mubarak-ek.

Egipton protesta saio batzuk izan dira Hosni Mubarak-ek hartutako jarreraren kontra. Zurrumurruek diotenez, milaka atxilotu egon dira Iraken aldeko protesta ekintzetan. Jarrera hau sektore islamistatik datorriko Mubarak-ek, baina Islam ofizialak babestu egin du bere jarrera.



Israeliar bat misil batek jotako etxeko hondakinetan harrapatuta.

AFP

Bi lagun hil dira Israelen Iraken azken Scudaren ondorioz

JERUSALEM

Bi pertsona hil dira Israelen bihotzekoak jota, Irakek Scud misilak jaurti eta gero. Heriotzak alarma soinuak eragindako egonezinen ondorioz suertatu dira. Hildakoak Alexander Ganitxov eta Josef Karpoman ditugu, biak Soviet Batasunetik etorritako juduak. Zazpi lagun zauriturik suertatu dira.

Jaurtiketa, Moshe Arens Defentsa ministroa EEBBetan zegoenean burutu da. «Israelen pazientzia agortzen ari da» esan du politikoa, jaurtiketaren berri izan duenean. Eraso

gertatu denean Arens irakiarra eta George Bush Estatu Batuetako lehendakaria bilduta zeuden gerraren nondik norakoa aztertzen.

Irakiarrek misil bi jaurti dituzte Israelen aurka eta beste bat Arabia Saudira zuzendu dute. Lehen jaurtiketari kontra egiteko hiru Patriot erabili ditu Israeliek. Bigarrena Riad-en izan da. Patriot misil iparramerikarrek okerrera egin dute Scuda baina Irakeko misilaren hondakinak Riad-eko unibertsitatetik gertu erori eta bi zauritu izan dira. Misilak kalte materialak eragin ditu eskualdean.

LABURREAN

HAMAS taldeko 350 palestinar atxilotu dituzte

'Hamis' mugimendu islamiko palestinarreko 350 bat partaide atxilotu dituzte Gazzah eta Zisjordaniako lurralde okupatuatan. Hamas desantolatzea lortu dutela diote agintari israeliarrek. gerra piztu aurretik hasi ziren operazio hau prestatzen, Hamas-ekoek hiru langile israeliar hil eta gero. Hamas taldea ez da Palestinaren Askatasunerako Erakundeko (PAE) partaide, eta zentzu erlijioso handia ematen die bere ekintzei ●

JORDANIAN bi militar «espia» exekutatu dituzte

Jordaniako bi hegazkin piloto exekutatu egin dituzte, Israel-en alde espia zirelako akusaziopean. Ali Abdul Hafiz eta Ahmed Mohamed Ahmed hilaren 3an exekutatu zituzten, 'Petra' berri agentzia jordaniarrak jakin erazi duenez. Jordaniak ez du bakerik sinatu Israelekin 1967an bi estatuak gerran hasi zirenetik; Zisjordania galdu zuen orduan Jordaniak. Exekutututako bi pilotoez zein kasutan nahastu ziren ez du zehaztu Petra agentziak ●

KONTSEILU

Iraultzailea bildu zen Bagdad

Saddam Hussein Irakeko erakunde politiko gorenarekin, Kontseilu Iraultzailearekin, bildu zen atzo, bigarren aldiz hiru egunetan, ordezkari diplomatiko soviatarrekin bildu aurretik. Bileran, Bagdadeko botereko arduradun gorenek hartu zuten parte, besteak beste, Hussein Kamal Hassan (Goardia Errepublikarreko burua), Izzat Ibrahim Kontseiluko lehendakariordea, Saadi Mahdi Saleh Legebiltzarreko lehendakaria edo Latif Nasem Jasem Informazio ministroa ●

ERREFUXIATU gehiago ihesi Iraketik

Irak eta Iran arteko mugara heldu ziren atzo Iraken zeuden 370 langile atzerritar, batez ere Viet Nam eta Iemen-ekoak. Muga ondoan Iraneko Ilargi Erdi Gorriak (Gurutze Gorriaren parekoa) eraiki dituen 40 errefuxiatu kanpamenduetan jarri dituzte oraingoz errefuxiatu hauek. 2.500 lagunek igaro du muga hori gerratik ihes egiten. Milaka errefuxiatuak Jordaniarantz jo du ●